# eingoxonau!

> 2011ko azaroa

6.



IKERKETA BEKA

## Emakumeak Berrizko historiari eginiko ekarpena

- Azaroak 25. EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA.
- Agenda
- BELDUR BARIK
- Argazki lehiaketako lan irabazlea.

BERRIZKO UDALA > Berdintasun Saila > 94 682 40 36 > berdintasuna@berriz.org > www.berriz.org

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
BFAk diruz lagunduta

UDAL LIBURUTEGIA · BERRIZ ·

AGURRA •

# HELDU DA 6. EINGOXONAU!

Eskuartean daukazu Berdintasun Sailetik kaleratu dugun Eingoxonau aldizkariaren seigarren zenbakia. Hurrengo orrialdeetan, azaroaren 25aren inguruan egingo ditugun ekintzen berri emango dizugu. Horrez gain, Beldur Barik lehiaketa, Donostian egingo den Beldur Barik jaialdiaren gaineko informazioa eta Berrizko emakumeek historiari eginiko ekarpena aztertzen eta jasotzen ari diren Itsaso eta Oier ikerlariei elkarrizketa, besteak beste. Zenbaki honetan, gainera, puntu lila bat daukazue aldizkariaren atzealdean. Moztu eta jarri begibistan emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera agertzeko!

Beti bezala, antolatutako ekintza, ikastaro eta tailerretan parte hartzera animatzen zaituztegu. Orri hauetako informazioa interesgarria izango delakoan, agur bero bat.

**Roland Isoird**
Berrizko alkatea

SALUDO

## *¡YA ESTA AQUÍ EINGOXONAU 6!*

*Tienes en tus manos el sexto boletin que hemos publicado desde el área de igualdad. En las próximas páginas te informamos sobre las diferentes actividades que se realizarán entorno al 25 de noviembre. Además, encontrarás información sobre el concurso y el festival Beldur Barik que se celebrará en Donostia y una entrevista realizada a Oier Iriondo y Itsaso Aramendi que conjuntamente están realizando una investigación sobre la aportación de las mujeres de Berriz a la historia. En la contraportada encontraréis un punto lila recortable para ponerlo en un sitio visible y demostrar el rechazo hacia la violencia contra las mujeres.*

*Como siempre, os animamos a participar en las diferentes actividades, cursos y talleres organizados. Esperamos que la información publicada en esta revista sea de vuestro interés.*

***Roland Isoird***
*Alcalde de Berriz*

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA •

## “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”
### AZAROAK 25

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, aurten, berriro ere, gazteriarengan jarri nahiko genuke arreta. Izan ere, indarkeriaz hitz egiteko beharraz gainera, errespetua, askatasuna, autonomia eta berdintasuna oinarri dituzten harreman afektibo eta sexualak eraikitzeko beharra ikusten dugu.

Erakundeek, hedabideek eta gizarteak oro har bukarazi beharreko arazo sozialtzat jotzen da emakumeenganako indarkeria. Hori azken urteotan erdietsitako lorpen garrantzitsua izan da. Halarik ere, askotan, indarkeria mota hori egoteko arrazoia ez dago ezagutzerik, ezta haren sustraiak zeintzuk diren ere, edo, besterik barik, ez da horren gainean informatzen. Askotan, “gaitz” hitza erabiltzen da definitzeko, jasan beharreko ezbehar bat izango balitz bezala, inolako arrazoirik gabe eta horren erantzule izango ez bagina bezala. Gizarteak neska gazteen kontrako indarkeria kasu ugari ikusten ditu txundituta, eta ez daki zer ari den gaizki egiten, gailentasun matxistako ereduak izateko oraindik nagusi gazteen arteko harremanetan.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da begirada zabaltzea, emakumeenganako indarkeriari buruzko ikuspuntu globala izatea, tratu txar fisikoak eta hilketa matxistak baino haragoko elementuak barne hartzeko eta gizartearen esparru guztietan mantentzen diren desberdintasunen adierazpen basatitzat jotzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu barik, ez eta gizon eta emakumezkoen harreman afektibo eta sexualak eraikitzeko modua ere.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, este año nos gustaría volver a poner el foco sobre la juventud, para hablar no sólo de violencia sino también de la necesidad de construir relaciones afectivas y sexuales basadas en el respeto, la libertad, la autonomía y la igualdad.

La violencia hacia las mujeres es considerada por instituciones, medios de comunicación y el conjunto de la sociedad como un problema social que hay que atajar. Ese ha sido un logro importante de los últimos años. Sin embargo, a menudo se desconoce, o no se explica, por qué sigue existiendo esta violencia, cuáles son sus raíces. Así, se emplea el término “lacra” para definirla, como si se tratase de una desgracia que tenemos que soportar sin saber por qué y de la que no somos responsables. La sociedad asiste con estupor a los casos de violencia sexista que se dan contra las chicas jóvenes y no sé explica qué se está haciendo mal para que las relaciones entre la juventud sigan marcadas por patrones de dominación machista.

En ese contexto, resulta imprescindible ampliar la mirada, tener una comprensión global de la violencia hacia las mujeres, que incluya más elementos que el maltrato físico y los asesinatos machistas, que entienda a los mismos como expresiones brutales de las desigualdades que se mantienen en todos los ámbitos de la sociedad. Es por tanto indispensable entender que no se puede luchar contra la violencia hacia las mujeres sin abogar por una transformación profunda de los modelos de masculinidad y feminidad, así como de la forma en la que se construyen las relaciones afectivas y sexuales entre las mujeres y los hombres.

Para emprender ese proceso, es necesario contar con referentes positivos. No se trata sólo de que la juventud identifique lo pernicioso de los modelos actuales, sino que sepa

Prozesu horri ekiteko, beharrezkoa da erreferente positiboak edukitzea. Xedea ez da gazteriak egungo eredu kaltegarriak antzematea bakarrik, baita maitasuna eta sexualitatea modu askeagoan eta berdintsuagoan bizitzen ikastea ere. Horretarako, aurtengo kanpainaren goiburua Beldur Barik Jarrera da. Gizarte berdinagoa eraikitzen laguntzen duten eguneroko jarrera txiki horiek landu nahi ditugu gazteekin. Neskekin, euren autonomia eta jabekuntza sendotzen dituzten jarrerak landu nahi ditugu, izan ere, mugak gainditzen eta estereotipo sexistak apurtzen lagunduko diete. Mutilekin, berriz, matxismoa deslegitimizatzeko jarrerak landu nahi ditugu, baita maskulinotasun hegemonikoaren eredutik aldetzekoak ere.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek
ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteengan, eta, betiere, euren partaidetza aktiboarekin.

Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu neskei beharrezkoak zaizkien baliabideak emateko, jabekuntza sendotu dezaten eta euren identitatea eraikitzeko eta berdintasun harremanak ezartzeko beste eredu batzuk aurki ditzaten. Onartu egiten du gazteek parte hartzea jarrera sexistak zalantzan jartzeko eta matxismorik gabeko jarrera hartzeko. Horretarako, ikusten dituzten erasoen kontra paper aktiboagoa izatera animatu behar ditugu neskak eta mutilak, bai eta desberdintasunak betikotzen laguntzen duten aurreiritziak eta estereotipoak antzematera ere.

Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

## "DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES"
### 25 DE NOVIEMBRE

vivir el amor y la sexualidad de formas más libres e igualitarias. Es por ello que el lema de la campaña de este año es Actitud Beldur Barik. Queremos trabajar con la juventud esas pequeñas actitudes cotidianas que contribuyen a construir una sociedad más igualitaria. En las chicas, actitudes que fortalecen su autonomía y empoderamiento, que les ayudan a superar barreras y a romper con estereotipos sexistas. En los chicos, actitudes de deslegitimación del machismo, así como aquellas que se alejan del modelo de masulinidad hegemónica.

Consciente de todo ello, este Ayuntamiento

ASUME EL COMPROMISO de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres poniendo especial atención en la violencia contra las jóvenes y adolescentes, contando con la participación activa de éstas.

Para ello, pondrá en marcha iniciativas que doten a las chicas de los recursos necesarios para fortalecer su empoderamiento y encontrar otros modelos para construir su identidad y establecer relaciones en igualdad. Asume el compromiso de implicar a la juventud en el cuestionamiento de comportamientos sexistas y la adopción de actitudes libres de machismo, animando tanto a las chicas como a los chicos a que tomen un papel activo contra las agresiones cotidianas a las que asistan, y a que identifiquen los prejuicios y estereotipos propios que contribuyen a perpetuar las desigualdades.

INVITA a la ciudadanía y, de manera muy especial, a las chicas y chicos del municipio a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.

AGENDA

## • azaroak 25




**NAGORE pelikula**ren emanaldia.
Kultur Etxean, arratsaldeko 18:00etan.

Filmaren ardatza Nagore Lafagge Erizaintza ikaslearen heriotza bortitza da. Nafarroako Unibertsitate Klinikako psikiatra batek erail zuen 2008ko San Fermin jaietan. Helena Taberna zuzendariak gidatu zuen 2010ean.
*La pelicula gira en torno a la muerte violenta de la estudiante de enfermería Nagore Laffage a manos de un residente en psiquiatría de la Clínica Universitaria de Pamplona, durante las fiestas de San Fermín de 2008, y estrenada en el 2010 por la directora.*
Zuzendaria: Helena Taberna
Iraupena: 77 minutu

**ELKARRETARATZEA.**
19:30ean Urtiaga Plazan GURE IZARRAK emakume taldearekin batera.

GURE ZARRAK
Berrizko Emakumeen Taldea

**Emakumeenganako indarkeriarik ez!!!**
**Elkarretaratzearen ondoren,**
**BELDUR BARIK LEHIAKETAko sari-banaketa egingo da.**
*CONCENTRACIÓN.*
*¡¡¡No a la violencia contra las mujeres!!!*
*Al termino, entrega de premios del concurso "BELDUR BARIK".*

## • azaroak 26




**BELDUR BARIK TOPAKETA 11:30etik aurrera Donostiako Emakumeen Etxean(Okendo kalea). Autobusak egongo dira Durangotik Donostiara joateko!!! Beharrezkoa da aurretiaz izena ematea udaletxean.**
*FESTIVAL BELDUR BARIK en la Casa de las Mujeres de Donostia, a partir de las 11:30. Habrá autobuses desde Durango a Donosti!!! Es necesario incribirse en el ayuntamiento.*

## • azaroak 27



**ANTZERKIA**
*Gezurrezko printzea.*
Kultur Etxean iluntzeko 19:30ean, euskaraz.
Txirene antzerki taldearen eskutik.
Senarraren bizitzan erabat murgilduta dagoen emakume baten bizitza kontatzen du. Senarraren ama gaixorik dago, eta lana utziko du zaintzeko. Senarrarentzat, berriz, ez dago bizimodu aldaketarik. Erabat etsita, harremana haustea erabakiko du. Senarraren ondoan bizi izandako une goxoak kontatzen dizkigu, eta banatze egoerak nolako menpekotasuna sortzen dion.

### TAILERRAK ETA IKASTAROAK

■ EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA TAILERRA. Iraultza barrutik. Miriam Herbonek zuzendutako tailerrak, urriaren 7tik azaroaren abenduaren 16ra arte OSTIRALERO Kultur Etxean 16:00etatik 18:00etara.
*/ TALLER DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES.*
Revolución desde dentro.
Taller dirigido por Miriam Herbon, todos los VIERNES de 16:00 a 18:00 en la Casa de Cultura.

■ NESKA GAZTEENTZAKO SEXUALITATE ETA INDARKERIA SEXISTA TAILERRA.
12 eta 16 urte bitarteko neskentzat.
Metodologia partehartzailea erabiliko da.
Otsailetik aurrera eskainiko da berriro.

■ ZORU PELBIKOA INDARTZEA.
Maiatzetik aurrera.
*/ FORTALECIMIENTO DEL SUELO PÉLVICO.*
*A partir de mayo.*

# BELDUR BARIK

BELDUR BARIK lehiaketak bigarren urtean berdintasunaren, askatasunaren, errespetuaren eta eraso sexistak tinko baztertzearen aldeko jarrerak sarituko ditu. Lanik onenak 500 euroko saria jasoko du Berrizko dendetan gastatzeko.

-Berrizko Udalaren ekimen hau Eudelek sustatutako Beldur Barik programaren barruan kokatzen da, eta euskal erakunde guztiek babesten dute; udalerrietan eta ikastetxeetan prebentzio-jarduerak egiteko asmoarekin.

Bigarren urte honetan, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeria tinko baztertzean oinarritutako jarrera eta jokabideak hartuta emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari neska-mutilek aurre nola egiten dieten erakusten dituzten adierazpen artistikoak aitortu, baloratu eta bultzatu nahi ditu lehiaketak.

Lanak aurkezteko epea (posta elektronikoz jarrera@beldurbarik.org eta berdintasuna@berriz.org helbidera bidalita) irailaren 12an zabaldu zen, eta azaroaren 11n itxi. Kategoria bakarra da: **12 eta 17 urte arteko neska-mutilei** zuzendutakoa eta saria Berrizko dendetan gastatzeko 500 euroko " txartela" izango da (erosketak Berrizko Berdintasun Sailetik kudeatuko dira irabazleekin batera, gurasoen oniritzia jaso ostean). Honez gain, partehartzaileek EAE mailako lehiaketan parte hartuko dute, eta 1000 euroko saria egongo da 12 eta 17 urte bitarteko kategorian eta beste 1000 euro, 17 eta 26 urte bitarteko kategorian. Aurtengo berrikuntzen artean, lan guztiak (lehiaketak oinarri hartzen dituen printzipioen kontra doazenak izan ezik) http://www.beldurbarik.org **webgunean** jarriko dituzte ikusgai. Webgune horretan **herri-bozketa** egingo da (bi kategorietan aurkeztutako lanak bilduko dira), eta boto gehien jasotako lanari 300 euroko herri-saria emango zaio. Lanek **Beldur Barik jarrera** transmititzea da garrantzitsuena; hau da, eraso sexistei aurre egiten dien eta berdintasunezko harremanen alde egiten duen jarrera. Berrizko udalerriko lan irabazlea azaroaren 18an jakinaraziko da eta








saria azaroaren 25ean emango da Urtiaga Plazan, indakeria matxistaren kotrako kontzentrazioaren ondoren. Berrizko Berdintasun Sailetik gazteriarengana jotzeko beharra ikusten du; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 2010ean genero-indarkeriagatik jarritako salaketen %36, 30 urte baino gutxiagoko neskek aurkeztutakoak izan ziren.



Beldur Barik 2009an abiatu zen; iaz egin zen lehiaketaren lehen urtea, eta 500 gaztek baino gehiagok parte hartu zuten ehun bat proposamenekin. Aurreko urtean bezala, aurten ere azaroaren **26an 11:30etik aurrera Donostiako Emakumeen Etxean** (Okendo Kalea) **Beldur Barik Topaketa** egingo da. Topaketa horretan lehiaketara aurkeztutako lanak erakutsiko dira eta sari banaketa egingo da. Horrez gain, **tailerrak, erakusketak, trukegunea, antzerkia, herri-bazkaria eta Beldur Barik kalejira** egongo da.

CONCURSO

# BELDUR BARIK

UDAL LIBURUTEGIA BERRIZ

- El ayuntamiento de Berriz premiará el trabajo que mejor transmita el rechazo contra la violencia hacia las chicas, con un bono de 500 euros para gastarlo en los comercios de Berriz.

-La iniciativa del Ayuntamiento se enmarca en el programa Beldur Barik, impulsado por Eudel con el apoyo de todas las instituciones vascas, organizando un concurso a nivel autonómico.

El Área de Igualdad del Ayuntamiento de Berriz convocó un concurso para implicar a la juventud de la localidad contra la violencia sexista. El certamen les ha dado la oportunidad de presentar trabajos en todo tipo de formatos (artes plásticas, danza, performance, ideas, proyectos, música...), que muestren cómo chicas y chicos enfrentan la actual situación de desigualdad hacia las mujeres con actitudes y comportamientos basados en el respeto, la igualdad, la libertad y autonomía, la corresponsabilidad y el firme rechazo a la violencia. Lo importante es que los trabajos transmitan la **actitud Beldur Barik**, aquella que se enfrenta a las agresiones sexistas y apuesta por las relaciones igualitarias.

El plazo para presentar los trabajos (enviándolos a los siguientes correos electrónicos berdintasuna@berriz.org y jarrera@beldurbarik.org) se abrió el 12 de septiembre, y finalizó el 11 de noviembre. Hay una única categoría **de 12 a 17 años de edad** y un premio de un bono de 500 euros para gastarlo en los comercios de Berriz (las compras serán gestionadas por la técnica de igualdad junto con el ganador o la ganadora del concurso, siempre con la aprobación de la persona responsable del o la menor). Además, los y las jóvenes participarán también en el concurso a nivel de la CAV y podrán ganar un premio de 1000 euros en la categoría de 12 a 17 años, y otros 1000 euros en la categoría de 18 a 26 años. Una de las novedades de este año es que todos los trabajos presentados (salvo los que van en contra de los principios del concurso) podrán ser votados por la ciudadanía en la página web http://www.beldurbarik.org. El trabajo que más votos consiga ganará un premio de 300 euros. Lo más importante es que los trabajos transmitan la actitud Beldur Barik, esto es, que hagan frente a las agresiones sexistas y que apuesten por relaciones basadas en la igualdad. El trabajo ganador del municipio de Berriz se dará a conocer el 18 de noviembre y la entrega del premio se realizará el 25 de noviembre en la Plaza Urtiaga, después de la concentración en contra de la violencia machista.

El Área de Igualdad del Ayuntamiento de Berriz constata la necesidad de trabajar prioritariamente con la juventud, dado que el 36% de las denuncias interpuestas en la Comunidad Autónoma Vasca por violencia de género en 2010 fueron presentadas por chicas menores de 30 años.

El programa Beldur Barik se inició en 2009; y el pasado año se celebró la primera edición del concurso, en el que participaron más de 500 jóvenes de la Comunidad Autónoma Vasca con un centenar de propuestas. Este año se volverá a celebrar el festival Beldur Barik el 26 de noviembre a partir de las 11:30 en La Casa de las Mujeres de DonostiA ( Okendo kalea). En el festival se expondrán todos los trabajos presentados y se hará la entrega de premios. Además, habrá un espacio para diversos talleres, exposiciones, comida popular y pasacalle "Beldur Barik" .

# «Berrizko emakumeak historiari eginiko ekarpena»





Oier Blanco Iriondo (Deba, 1986)

Emakumeen ekarpenak gutxitan jaso eta argitaratu dira historian. Horregatik, emakumeen lana eta hark bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoan izan duen eragina ezkutuan egon da gaurdaino.
Ikerketa beka honen xedea, emakumeek Berrizko herriari egindako ekarpenei buruzko kalitatezko ikerketa egitea izan da eta ezkutuan egon dena bistaratu.

Ikerketa beka hau posible izan da aurreko legealdiko Ezker Abertzaleko zinegotziek beraien dietetatik 16.000 euro horretarako bideratu zituztelako.

**Zertan datza zuen ikerketa-lana?**
Berrizko Udalak emandako bekari esker, Berrizko emakumeen inguruko historia ikertzen ari gara. Gure helburua frankismoaren garaiko emakumeen ekarpenak ikertu eta argitaratzea da. Honetarako, frankismoa bizi izan duten emakumeak elkarrizketatuko ditugu.

**Lanak zati bi dauka. Azaldu iezaguzue labur-labur...**
Bai, lana bi zati nagusitan banatzen da. Lehenengoa idatzizko lana da, ikerketaren ondorioz sortuko dena. Bigarren zati batean, idatzizko lan horretan oinarritutako ikus-entzunezko film laburra egiteko asmoa daukagu.

**Zer lortu nahi duzue ikerketa honekin?**
Ikerketa honekin frankismoaren garaiko emakumeen historia eta errealitatea azaleratu nahi ditugu. Tradizionalki, gizonak izan ohi dira historia ikerketen protagonista nagusiak eta emakumeak bigarren maila batean geratu izan dira. Ikerketa honek, aldiz, arreta emakumeengan jartzen du eta hauen errealitate eta ekarpenak argitaratu nahi ditugu.

**Zergatik da garrantzitsua emakumeek historiari eginiko ekarpena?**
Lehen aipatu dugun bezala, emakumeen ekarpena ezkutuan geratzen delako, baina horrek ez du esan nahi garrantzia gutxiago duenik. Ekarpen hori ez da hain publikoa izaten eta horregatik ezkutuan geratu ohi da.

**Zer emango dio lan honek Berrizko Udalerriari?**
Lan honek berriztar askori herriko iragan hurbila ezagutzeko aukera

## La aportación de las mujeres a la historia de Berriz

BECA DE INVESTIGACIÓN



El área de igualdad del Ayuntamiento de Berriz, convocó una beca de investigación en febrero y entre todos los que se presentaron, el proyecto seleccionado fue el de Itsaso Aramendi Urbieta (Azpeitia, 1986) y Oier Blanco Iriondo (Deba, 1986).

La mayoría de las veces, la historia no recoge las aportaciones de las mujeres, su trabajo no es reconocido ni tampoco su repercusión en la vida social, económica y política. Con esta beca de investigación, queremos un trabajo de calidad que refleje la aportación de las mujeres al pueblo de Berriz.
Esta beca de estudio ha sido posible gracias a la aportación económica de 16.000 euros correspondiente a las dietas de las/os concejalas/os de la Izquierda Abertzale en la anterior legislatura.

**¿Cuál es el trabajo que estáis realizado? ¿Sobre qué trata?**
Gracias a la beca del Ayuntamiento de Berriz estamos recopilando información sobre las mujeres de Berriz. Nuestro objetivo es investigar y dar a conocer lo que las mujeres de Berriz de la época franquista han aportado a nuestra historia. Para ello, entrevistaremos a mujeres que vivieron esa época.

**El trabajo tiene dos partes. ¿Podríais explicárnoslas brevemente?**
Sí, el trabajo consta de dos partes principales. La primera parte es el trabajo escrito, que se basará en el trabajo de investigación. Y la segunda, estará basada en el trabajo escrito y consistirá en un trabajo audiovisual.

**¿Que queréis conseguir con este trabajo de investigación?**
Con este estudio queremos hacer un reconocimiento a esas mujeres berriztarras . Tradicionalmente los hombres han sido los protagonistas principales de la historia escrita y las mujeres han estado relegadas en un segundo plano. Esta investigación en cambio, se centra en el papel de la mujer. Lo que supuso el franquismo para ellas y lo que ellas vivieron y aportaron en esa época.

**¿Por qué es importante la aportación que han hecho las mujeres a la historia?**

**Berrizko Udaleko Berdintasun sailak ikerketa beka baten deialdia egin zuen otsailean eta aurkeztutako proiektuen artean, Itsaso Aramendi Urbietaren (Azpeitia, 1986) eta Oier Blanco Iriondoren (Deba, 1986) proiektua aukeratu genuen.**

emango die eta, gainera, emakumeek eginiko ekarpenaren errekonozimendu bat izango da eurentzat.

**Noiz aurreikusten duzue bukatzea eta zein izango da azken lana?**
Idatzizko lana udarako bukatzea espero dugu eta ikus-entzunezkoa 6 hilabete gehiago aurreikusten dira.

**Testigantzak batuko dituzue. Zelan aukeratuko dituzue edo aukeratu dituzue lekukoak?**
Gu berriztarrak ez garenez, hori da lanik zailena, ez baikenuen herriko jendea ezagutzen. Horretarako ezinbestekoa izan da Berriz 1936 Gogoratzen elkartekoen, Udalaren eta berdintasun sailaren laguntza.

**Zenbat denbora beharko duzue?**
Orain dela hiru hilabete inguru hasi ginen lanarekin, lehenengo hartuemanetan, baina uda ondoren ekin diogu benetan lanari.

**Orain arte egin duzuen lana aztertuta ... espero ez zenuten daturik aurkitu duzue ?**
Oraindik lanaren lehen urratsak baino ez ditugu eman eta ez genuke datu berezirik nabarmenduko. Suposatzen dugu lanean aurrera egin ahala azalduko direla horrelakoak.

**Lehenengo testigantzak jaso orduko, datu-bilketa bat egin duzuela suposatzen dut. Nola egin duzue bilketa hori?**
Datu bilketa hori hainbat iturritatik egin dugu: artxibategiak kontsultatuz, frankismo garaiko eta emakumeei buruzko bibliografia aztertuz...

**Antzeko lanetan esperientziarik bai?**
Biok prestakuntzaz historialariak garenez unibertsitatean eginda geneukan antzeko lanen bat, baina ez hain sakona.

**Antzeko lanen erreferentziarik badaukazue?**
Azkeneko urteotan, frankismoaren garaiko ahozko historian sakondu duten lan ugari egin dira Euskal Herrian: Bilbon, Altsasun, Beasainen, Tolosan... Gainera, badago frankismo garaiko emakumeen historia sakondu duen lan bat Basaurin.


Itsaso Aramendi Urbieta (Azpeitia, 1986)

Como hemos comentado anteriormente, se desconoce la aportación y el papel de las mujeres a lo largo de la historia y concretamente en la historia de Berriz pero eso no quiere decir que sea menos importante que la aportación de los hombres.

**¿Qué le ofrecerá este trabajo al municipio de Berriz?**
Este trabajo dará a muchas y muchos Berriztarras la oportunidad de conocer el pasado cercano, y además, será un reconocimiento para las mujeres de Berriz.

**¿Cuando tenéis previsto finalizar el trabajo?**
Esperamos finalizar el trabajo escrito para verano. A partir de ahí, prevemos seis meses más para finalizar el trabajo audiovisual.

**Haréis entrevistas para recavar información, ¿Cómo elegiréis las mujeres a entrevistar?**
No somos de Berriz y eso nos parecía difícil ya que no conocíamos a nadie del pueblo. Para ello ha sido imprescindible la ayuda de las y los integrantes de Berriz Gogoratzen 1936, del ayuntamiento de Berriz y de la técnica de igualdad del mismo.

**¿Cuanto tiempo lleváis trabajando en la beca?**
Empezamos a trabajar hace unos tres meses, pero ha sido después del verano cuando nos hemos puesto realmente manos a la obra.

**¿Con el trabajo realizado hasta ahora habéis encontrado algún dato que os haya sorprendido?**
Todavía estamos a puertas y no ha habido nada que nos haya sorprendido en especial. Suponemos que aparecerán datos interesantes en la medida que avance nuestra investigación.

**Antes de empezar con las entrevistas habréis hecho una recogida de datos...**
Hemos recogido datos de diferentes fuentes: consultando archivos, leyendo bibliografía de la época franquista y sobre mujeres....

**¿Tenéis experiencia en trabajos de este tipo?**
Los dos somos historiadores de formación, y en la universidad realizamos un trabajo parecido, pero no de esta embergadura.

**¿Tenéis referencia de trabajos similares?**
En los últimos años se han hecho bastantes trabajos ligados a la época franquista y la historia oral del País Vasco: Bilbao, Altsasu, Beasain; Tolosa... Además, hay un trabajo que profundiza más en la historia de las mujeres de la época franquista en Basauri.

# EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ

# NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

moztu eta jarri begibistako lekuan emakumeenganako indarkeriaren aurka zaudela adierazteko!!!

Eta badakizu, zalantzak, galderak, proposamenak jasotzeko edota zalantzak argitzeko, deitu edo bidali e-mail bat, eta gustura erantzungo dizugu.

Y, ya sabes, si tienes dudas, preguntas o propuestas, llama o manda un e-mail y te atenderemos gustosamente.

**94 682 40 36**
**berdintasuna@berriz.org**



«Kolpez kolpe II. Bidea egiten» Aitor Aulestiarte

n!

## san pedro eta santa isabel jaietako argazki lehiaketa

Azken urteetan bezala aurten ere jaietan emakumeen partehartzea islatzeko asmoz argazki lehiaketa antolatu genuen. Lehiaketa honen helburua da adierazpen kulturaletan eta herriko jaietan, rol eta estereotipo sexistak gainditu, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna adieraztea.
Horrez gain, irailean zehar Kultur Etxeko erakusketa gunean erakusgai egon ziren aurkeztutako lanak.
Aurten aurkeztutako lan guztien artean Aitor Aulestiarteren argazkia izan zen aukeratutako lana.
300euroko saria jaso zuen irabazleak.